

URNIETAKO ONTZIEN SAILKAPEN PLANTA

SEGURTASUN ARAUAK

- Nor zaren eta zertara zatozen adieraz ezazu instalazioaren harreragunean (sarrerako baskula inguruan).
- Gogoan izan instalazio osoan debekatuta dagoela erretzea eta sua piztea.
- Zorrotz bete itzazu bertako langileen esanak bisitaldian zehar.
- Ez zaitetz hurbildu makinaren ingurura ezinbestekoa ez baduzu. Inguratzekotan, egin ezazu makinistak ikusteko moduan.
- Erabat debekatuta dago zabor edota ontzien artean ezer bilatzen aritzea eta bertatik zemahi hartzea.
- Arazoren bat sortuko balitzaizu, jakinarazi berehala instalazioko langile edo arduradunei; ez saiatu arazoa zeure kabuz konpontzen.
- Arretaz gida ezazu bai zabortegirako bidean eta bai zabortegiaren barruan ere, seinaleak beti errespetatuz eta ibilgailuentzako bideak erabiliz.
- Larrialdiren bat (istripu, eroriko, sute, leherketa, etabar) balitz, ez estutu eta bertako langileen esanak jarraituz irten zaitetz instalaziotik.
- Arriskutsua den gune batera bazoaz, eskatu babes-neurri egokiak arduradunei.
- Bisita guztiak egingo dira San Markoseko Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoetako langilego baimenduaren gidaritzapean.
- Gogoan izan: instalaziora sartzen diren ibilgailu guztiek indarrean dagoen ingurugiroari buruzko araudia bete beharko dute, bai Europar Batasuneko, bai estatu mailakoa, baita autonomikoa eta herri administrazioena ere (ITV eguneratua, ihes tutuen isurien kontrola...).
- Instalazioen esparru barruan arrisku biologikoa dago, horregatik guztiz debekatuta dago bertan jan edo edatea.

_____ jaunak/andreak, _____ ikastetxeko _____
_____ taldearen arduradun gisa,

Ondokoa adierazten du:

1. Urnietako Ontzien Sailkapen Plantako Segurtasun Arauak jaso dituela eta beraz irakurri eta ulertu dituela, ondoren bere bisita taldeari zabaltzeko.
2. Taldearen arduradun gisa, arau horiek betearazteko eta bere taldeak betetzea zaintzeko hitza ematen du.

Hala adierazita gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, honako adierazpen hau egin du,

_____ (e)n, _____ ko _____ (r)en _____ (a)n.

Sinadura y zigilua

Sin. _____